



IKASLEEN ESKUBIDE eta BETEBEHARRAK

IKASLEEN ESKUBIDEAK /

- Hezkuntza integrala jasotzea.
- Adingabeek arreta eta babesa berehala jasotzeko eskubidea.
- Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izatea.
- Eskola- eta lanbide-orientazioa izatea.
- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonala errespetatzea
- Kontzientzia eta adierazpen askatasuna errespetatzea
- Biltzeko eta elkartzeko aukera izatea.
- Ikastolako ekintza guztietan parte hartzeko aukera.
- Informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko aukera.
- Aukera-berdintasunerako laguntzak jasotzeko eskubidea.
- Gizarte-babeserako eskubidea.
- Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea

IKASLEEN BETEBEHARRAK

- **Ikastea** da ikasleen oinarrizko betebeharra.
- **Ikastolara joatea.** Hutsegiteak tutoreari adierazten zaizkio justifikante bidez.
- **Ordutegiak errespetatzea.**
- Eskola orduetan **ezin da ikastolako eremutik kanpo irten** .
- Irakasleriak emandako **orientazioak jarraitzea eta agindutakoa betetzea.**
- **Elkarbizitzarako arauak errespetatu.**
- Ikastolako eta ikaskideen **materialak eta instalazioak errespetatu.**
- Ikastolaren **Hezkuntza Proiektua eta Antolamendua eta Jarduera Araudia (AJA)** errespetatu.

JOKABIDE DESEGOKIAK

- Justifikatu gabeko **puntualtasun** hutsak.
- Justifikatu gabeko **asistentzia** hutsak.
- Gelako **erritmoa apurtzea.**
- Ikastolako edo ikaskideen **jabegoen hondaketa** edo/ eta **materialaren erabilpen desegokia.**
- **Indiziplina:** irakaslearen **esana ez betetzea, errespetu falta**, ikastolako edozein kideretik **irain edo ofentsak.**
- Ikastolako edozein kideren aurkako **eraso fisikoak.**
- Ikastetxeko eremutik **baimenik gabe irtetea.**
- **Nortasuna ordezte**a eta agiri akademikoetan iruzur egitea.
- Ikastolako edozein irakaslek, Bizikidetza Taldeak edo organo gorenak **hartutako erabakiak ez betetzea.**

JOKABIDE DESEGOKIAK IZATEAN JARRAITUKO DEN PROZEDURA

▶ Ikasleak jokabide desegoki bat egitean **irakasleak jokabidea erregistratzen du** eta tutoreari berri ematen dio.

▶ Ikastolako Bizikidetza Taldeak erregistratutako jokabidea aztertzen du, eta **jokabide mota bakoitzak dakarren erantzukizuna ikasleari jakinarazten dio**. Horretarako, Bizikidetza Taldeko kideak ondorengo artikuluetan oinarritzen dira:

“Barne araudi honetako **ondorioak egindako hutsaren araberakoa** (jokabide desegokia, bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria) izan behar du, eta ikaslearen hezkuntzaren hobekuntzari lagundu behar dio. Ondorio hauek hitzezko errietatik espedientea zabaltzerainokoak izan daitezke.”

“**Betebeharra egokitzerakoan**, honako hauek hartu beharko dira kontuan: **ikaslearen adina, eskola, maila**”

“**Tutoreak idatziz ikaslea eta gurasoak jakinaren gainean jartzen ditu.**”

“Ikasleak egokitu zaion **betebeharra burutzen duenean**, Bizikidetza Taldeak berau erregistratzen du.”

OHARRAK

- Aurretik aipatutako arauak ikastolak **antolatutako edozein ekintzetan aplikatzen dira, nahiz eta ikastolatik kanpo gertatu.**
- Ikasleak, **eskubideak onartzen zaizkion bezala, betebeharrak onartu eta burutu behar ditu.**
- ***Ikasleak jokabide desegokiak behin eta berriz errepikatzen baditu, dagokion ondorioa izango du:****Hiruhileko akademiko berean, 3 gertaera arin (inzidentzia) egitea jokabide desegoki bezala kontsideratuko da; Jokabide desegokiren bat 3 aldiz egitea, bizikidetzaren aurkako jokabide bezala kontsideratuko da, eta bizikidetzaren aurkako jokabideren bat 3 aldiz egitea, Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragitea bezala hartuko da. Bestalde, ikasturte berean, jokabide desegoki bat 5 aldiz eginez gero, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide bezala hartuko da.*
- Edozein motatako jokabide desegokiren **preskripzioa (iraupena), kurtoarekin bukatzen da.**
- **Familiaren parte hartzea ezinbestekoa da** ikastolan elkarbizitza egokia izan dadin.

